



1. PARTE HARTZAILEAK

Sari hau mundo osoko parte hartzaileei irekita dago, zaletuak zein profesionalak. Nazioarteko sari honek ondorengo babesa dauka: **FIAP 2017/337**, **CEF I/2017/13** eta **FAFPV 005/2017**. Hauen arauetan oinarritzen da eta puntugarria da hauen ohorezko tituluetarako.

2. MODALITATEA

Bakarrik fitxategi digitalak onartuko dira.

3. SAILAK / GAIK

- A) Gai Librea, Monokromoan
- B) Gai Librea, Kolorean
- C) Jendea (naiz kolorean naiz monokromoan)

4. LANAK

Irudi guztiak parte hartzaileak berak eginak izango dira eta ezingo da irudian kanpoko elementurik sartu. Argazkilari bakoitzak, gehienez, 4 argazki aurkeztu ditzazke lan atal bakoitzeko (gehienez 12 argazki). Ez da onartuko lehiaketa honetara aurrez bidalitako lanik eta argazki bera ezin da atal bat baino gehiagotan aurkeztu. Argazkiak JPGn aurkeztuko dira, bere alde handienera, **2000 pixelekin**. Fitxategi bakoitzat gehienez, **1MBko** tamaina izan dezake. Gomendatzen da, kolore eremua sRGB izatea.

5. AURKEZPENA

Aurkezpena, bakarrik, internet bidez egingo da. Izen-ematea, irudien bidalketa eta izenemate eskubideen ordainketa www.trofeogipuzkoa.com web-an egingo dira. Irudiak 2017/10/31 bitartean aurkeztu daitezke, programa informatikoaren argibideak jarraituz.

6. IZENEMATEAREN ESKUBIDEAK

25 € egile bakoitza, kontutan izan gabe zenbat sailetan parte hartzen den. Ordainketa **bakarrik PayPal** bitartez egin daiteke, www.trofeogipuzkoa.com orrialdearen bidez eta programa informatikoaren urratsak segituz. **Oharra:** Sistemak ordainketak onartuko ditu txapelketen plataformaren barneko loturatik sartzen bada Paypal-en. Alderantziz eginez gero antolakuntzak ez du erantzunkizunik izango onartzen ez bada eta partehartzailea leihaketatik kanpo gera daiteke, partehartzeko kuota bueltatzeko eskubide bakararekin. Salbuespen bezela, ordainketa banku transferentziaren bitartez onartuko da, kargurik gabe, **KUTXABANK IBAN ES53 2095 5001 07 1060003869** kontuan, eta ordainketaren ziurtagiria posta elektronikoko baten bitartez bidaliz, trofeogipuzkoa@sfg-ss.com helbidera, parte hartzailearen datuekin batera.

7. KATALOGOA (***FIAP)

Kalitate altuko inpresioa duen Argazki katalogo bat argitaratuko da, eta parte hartzaile guztiei bidaliko zaie. Hontan, saritutako argazkiak eta hautatutako zenbait jasoko dira, egilearen izena aipatuz.

8. SARIAK

- **GIPUZKOA TROFEOA eta 700€** (gai bakoitzeko irabazleari) eta katalogoan autorearen biografi labur bat argitaratuko da.
- **FIAPen Intsignia Berezia eta 500€** (saloiko egilerik onenari) leihaketako hiru atalak kontutan izanik onarpen gehien dituen leihaketako egilearentzat. Ex aequo edo berdinketa kasuan antolatzaileak erabakiko du eta erabaki honen aurka ezingo da errekurtsorik aurkeztu. Leihaketako katalogoan egileren biografia motz bat argitaratuko da.
- 3 FIAPen Urreztatutako Domina bana (sail bakoitzeko bat)
- 3 FIAPen Zilarreztatutako Domina bana (sail bakoitzeko bat)
- 3 FIAPen Brontzeztatutako Domina bana (sail bakoitzeko bat)
- FIAPen Ohorezko 18 Aipamen (sail bakoitzeko sei)
- 3 CEF Urreztatutako Domina (sail bakoitzeko bat)
- 3 CEF Zilarreztatutako Domina (sail bakoitzeko bat)
- 3 CEF Brontzeztatutako Domina (sail bakoitzeko bat)

Euskaldunak (Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroan bizi direnentzat soilik)

- **MARQUES DE ROCAVERDE Euskal Trofeoa** (Saloiko lan onenari).
- 3 GAEn Urreztatutako Plaka bana (sail bakoitzeko bat)
- 3 GAEn Zilarreztatutako Plaka bana (sail bakoitzeko bat)
- 3 GAEn Brontzeztatutako Plaka bana (sail bakoitzeko bat)

Guztira 48 sari eta 1200 €

9. GONBIDAPENAK

Gipuzkoa Saria eta egile onenari emango zaion FIAPen intsignia bereziaren irabazleei, Euskal Herrian edo Nafarroan ez badira bizi, Donostian asteburuko egonaldi batetara gonbidatuko zaie (2 gauetako egonaldia) ostatua eta gosaria barne dutelarik (bidaia eta garraioa kanpo), Sariak Emateko Zeremonia egiten den astebururako eta hontara joango direlaren konpromezuarekin.

10. EPAIMAHAIA

Epahimahaiko hiru kideak entzuteko argazkilariak izango dira, nazioarteko argazkilaritza ondo ezagutzen dutenak, beti ere FIAP-ek ezartzen dituen baldintzak betez. Jasotzen diren lanak epaimahikideei aurkeztuko zaizkie eta hauek beraien epaia bildu ondoren emango dute. Epaimahaikideak izango dira:

- Miguel Cabezas - IAE-ko kide (Irungo Argazkilari Elkarte). Tituluak: MCEF (Espainiar Argazkigintza Konfederazioko Maisua) eta EFIAP (Nazioarteko Argazkigintza Federazioko Bikaintasuna).
 - Pere Soler - Naturan espezializatutako argazkilaria. BBC-Wildlife Photographer of the Year 2015 lehiaketan "From the Sky" kategoriako irabazlea.
 - Ramón Vaquero - Publizitate imajin, gizarte, industri eta erreportaien argazkilari profesionala. Bere hainbat argazki izan dira sarituak, erakusketetan erakutsiak eta eta nazioartean argitaratuak. Nazio mailako eta nazioarte mailako lehiaketetan epaimahikide izan da.
- Ordezkoa: Gipuzkoako Argazkilari Elkarte lehiaketetarako atalaren arduraduna.

11. EMAITZEN JAKINARAZPENA

Zein lan hautatu diren eta ze argazkilarik jaso duten saria www.trofeogipuzkoa.com-en argitaratuko da. Egile bakoitzak emailaz banakako informazioa jasoko du ezarritako egutegiaren arabera.

12. ERAKUSKETA

Gipuzkoako Nazioarteko Sariari ahalik eta hedapen handiena ematekotan, sail bakoitzean saritutako lanak eta bilduma irabazlearen kopiak egingo dira eta 40x50 zmk markoan jarriko dira, egilearen izena jarrita. 2018an erakusketa ibiltarian parte hartuko dute.

13. EPEAK

- | | |
|-----------------------------|---------------------------|
| • Onarpen gehieneko data: | 2017ko urriak 31a |
| • Epaia: | 2017ko azaroak 18-19a |
| • Jakinarazpenak bidaltzea: | 2017ko abendua 15a |
| • Sariak emateko zeremonia: | 2018ko urtarrila/ otsaila |
| • Erakusketa: | 2018ko urtarrila/ otsaila |
| • Katalogoa bidaltzea: | 2018ko martxo/ apirila |

14. OHARRAK

Erakusketa honetan parte harzeak zera esan nahi du, partehartzaileak ziurtatzen duela bere lanaren egilea dela eta aldi berean antolakuntza baimentzen duela katalogorako bere lanaren kopiak egiteko eta horretarako mugarik ez duela, hala nola edozein zabalkundetarako eta erakusketaren sustapenerako, beti ere noski egilearen izena agertzen dela. Egileen erantzunkizuna da hirugarrengok eskubiderik ez izatea, hala nola irudi eskubidegatik beste erreklamaziorik. Erakusketak ez du erantzunkizunik izango copyright-aren erabilera okerra egiten badu edozein partaidek.

Leihaketan parte hartzeak araudiarekin ados egotea esan nahi du, antolakuntzak eskubidea izango duelarik oinarri hauetan aurrakusi ez den beste gaietan erabakia hartzeko, RAW artxiiboak eskatzeko edota araudi hau betearazteko beharrezkotzat jotzen duen edozein informazio eskatzeko. Adin txikikoak parte hartuko balute indarrean dagoen araudia aplikatuko da antolakuntzarekin emailaz harremanetan jarriz alde aurretik trofeogipuzkoa@sfg-ss.com

Egile batek ez du nazionarteko, nazional edo sari euskaldun bat baino gehiago irabaziko saileko. Leihaketak ARGIZAIOLA Sarirari sailkatzeko balioko du, Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkarteak antolatutakoa. (EHATE)

15. FIAP-ENTZAT ARGAZKI ZURI-BELTZA (MONOKROMOA) ZERTAN DE

Zuri-beltzean eginiko lana, gris argienetik (zuritik) gris oso ilunera (beltzera) grisaren nabardura desberdinak dituen lan monokromoa da.

Zuri-beltzean eginiko lana, oso-osorik kolore bakar batean biratuta izan bada, zuri-beltzeko kategorian onartu daiteken lana izango da. Aipatu lana, FIAPek babestutako aretoen katalogoetan, zuri-beltzean argitaratu ahal izango da.

Haatik, zuri-beltzean eginiko lanen bat zatikako biraiaz edo eta bestela erantsitako kolorearen batez landua izango denean, koloreko lana bezala (polikromoa) begiratua izango da, hots, koloretako lanen artean kokatuko dutelarik. Izan ere, FIAPek babestutako aretoen katalogoetan aipatu obra nahitaez koloretan argitaratu beharko dute.

2017/337



I/2017/13



005/2017

